# HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA

## Arrigorriagako Hiria Antolatzeko Plan Orokorreko Irizpideak, Helburuak eta Alternatibak Eguneratzeko herritarren partehartzea

### Interesa duen edonork parte har dezake, webgunearen bidez nahiz aurrez aurre

Arrigorriagako Udalak Hiria Antolatzeko Plan Orokorra berrikusteko lanei heltzea erabaki du. Hain zuzen ere, 2010ean hasi ziren lan horiek, baina, 2011ko martxoaren 31n Udalaren Osoko Bilkurak Plan Orokorraren Irizpideak, Helburuak eta Aukerak onartu ondoren, bertan behera utzi ziren. 2011ko ekainean erabaki zen lanak etetea, nagusiki bi prozesu judizial zeudelako abian Aurrerapenean esku hartzeko proposatutako bi sektore urbanizagarriri buruz (AR-R2 Lanbarketa eta Bentakoerreka industria sektorea). Prozesu horiek epai irmoa dute, gaur egun, eta, hala, plan orokor berria berme osoz lantzeko bidea ireki da. Horrexegatik hartu du Udalak erabaki hau. Hala, Plan Orokorra idazteko lanei berrekingo zaie, orain aurkezten den dokumentu honen bidez: **"Plan Orokorraren Irizpideak, Helburuak eta Aukerak Eguneratzea".**

2011n onartutako **Arrigorriagako Plan Orokorraren Irizpideak, Helburuak eta Aukerak berrestea** du xede dokumentu honek. Irizpideak, helburuak eta aukerak onartzeko, herri partaidetzako prozesu zabal bat antolatu zen orduan, eta dokumentu haren **zenbait alderdi berrikusteko premia** sortu da, orain, arrazoi hauek direla eta:

- Lanbarketa eta Bentakoerreka lurzoru urbanizagarriei buruzko epai judizialak betetzea.
- Plangintza errealitate fisikoari egokitzea.
- Dokumentua 2011z geroztik EAEn garatutako udalaz gaindiko antolaketa tresnek (lurraldekoek eta sektorekakoek) ezarritako xedapen berrietara egokitzea.

**Plan Orokorraren Irizpideak, Helburuak eta Alternatibak Eguneratzea dokumentua lantzeko herritarren partehartze prozesuak** 2 hilabeteko iraupena izango du, **uztailaren 10etik irailaren 10era,** hain zuzen. Bitarte horretan, prozesuan parte hartzeko aukera izango dute herritarrek nahiz elkarte eta gainerako interesdunek, horretarako diseinatutako edozein partaidetza bitarteko erabiliz.

#### Partze hartzeko bideak:

**Aurrez aurre:**
"Plan Orokorraren Irizpide eta Helburuak Eguneratzea" dokumentua herritarrei aurkeztea:

Lonbo Aretoan, uztailaren 10ean, 19:00etan.
Abusu Zentro Soziokulturalean, uztailaren 12an, 19:00etan.

**Informazio panelen erakusketa:**
07/10etik 09/10era, Udaleko HAZn
Ordutegia: 08:00etatik 13:45era
07/12tik 08/10era eta 09/01etik 09/10era, Abusu Zentro Soziokulturalean. Ordutegia: 08:00etatik 14:45era

**Inkestak:**
Erakusketak irauten duen bitartean, inkesta-galdetegi batzuk jarriko dira publikoaren eskura, aurkeztutako dokumentuei buruzko iritzia eman dezan.

**Webgunearen bidez:**
www.arrigorriaga.eus
HAPOa berrikusteko prozesuari buruz sortutako material guztiaren kontsulta, on-line inkesta eta gaiari buruzko berriak

## Berrikuntza nagusiak:

Hauek dira Plan Orokorraren **Irizpideak eta Helburuak eguneratzeari** loturiko **berrikuntza nagusiak**:

- **Irizpide eta helburu orokorrei** dagozkienak:
  - ❑ Eguneratu egin dira Aurrerapenean **bizitegi eskaintzaren kuantifikazioari** buruz egindako kalkuluak eta aurreikuspenak, EAEko Lurraldea Antolatzeko Irizpideetan egindako aldaketekin bat etorriz. 584 eta 727 etxebizitza arteko tartea definitu da.
  - ❑ Irizpide berriak txertatu dira dokumentuan, hirigintzak hainbat zeharlerrori buruz –hala nola, **genero ikuspegiari, osasunari edo klima aldaketari** buruz– izandako bilakaerari egokitzeko.
- **Lurzoru ez urbanizagarriari** dagozkionak:
  - ❑ Ezabatu egin dira Aurrerapenean proposatutako landa guneak, eta Brisketa soilik gelditu da landa gune gisa, EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/206 Legeak eta BFAren Bizkaiko landa guneen inbentarioak ezarritakoarekin bat etorrita.
  - ❑ Eguneratu egin dira udalaz gaindiko legediaren afekzioei eta transposizioei buruzko oharrak, lurzoru ez urbanizagarriaren kategorizazioari eta babesari dagokionez.
- **Bizitegi lurzoruei** dagozkienak:
  - ❑ **Ezabatu egin da AR-R2 Lanbarketa sektorea birdentsifikatzeko proposamena** ezabatu da, EAEANaren epaiak amaitutzat ematen baitu hirigintza tramitazioa (eremuak Plan Partziala du, Birzatiketa Proiektua).
  - ❑ Bultzada eman zaio **auzoak berritzeari eta birgaitzeari**. Hainbat arrazoi direla medio –urbanizazioaren gabeziak, kontserbazio egoera edo oinarrizko eraikuntza baldintzak, sarbideak, baldintza termikoak, gizarte ahultasuna eta abar– lehentasunezko jotako auzoei dagokienez bereziki.
  - ❑ BI-625 errepidearen eta ibaiaren artean kokatutako **Martiartuko hiri-lurzorurako proposamena** berraztertu da, baldintza sektorial berezien eraginpean dagoelako. **2 aukera aztertu dira.**
- **Jarduera ekonomikoko lurzoruei** dagozkienak:
  - ❑ Berraztertu egin da **Bentakoerrekako lurzoru industrialen** hirigintza egoera, EAEANaren eta Auzitegi Gorenaren epaien ondoren, zeinak indargabetu baitzuten Arau Subsidiarioen 9. aldaketa. **3 aukera aztertu dira**
  - ❑ **Baztertu egin da Bentakoerreka handitzea** Arau Subsidiarioen 9. aldaketan (indargabetua) sailkatutako lurzoruetatik haratago, 2010eko Aurrerapenean proposatutako 3 aukerekin.
- **Zuzkidura publikoekin** loturikoak:
  - ❑ **Ibai pasealekuen inguruan espazio libre berriak sortzeko** helburua erantsi da ("Ibai parkea" proposamena).
  - ❑ Ollarganen aparkaleku zuzkidurak eta espazio libreak hobetzeko aukera aztertu da (indarrean dauden arau subsidiarioetan, 3-**EU La Peña eremuko 2. aukera gisa aztertua**).

Orri honen atzeko aldean, Aurrerapeneko aukeren plano bat ageri da (6. planoa); plano horretan adierazita daude proposatzen ari diren berrikuntza nagusiak eta dokumentu honek berresten dituen **proiektu adierazgarrienak**.

# PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA

## Participación ciudadana en la "Actualización de los Criterios, Objetivos y Alternativas" del Plan General de Ordenación Urbana de Arrigorriaga

### La participación estará abierta a todas las personas interesadas, que podrán hacerlo vía web o de manera presencial

El Ayuntamiento de Arrigorriaga ha decidido retomar la revisión del Plan General de Ordenación Urbana, que comenzó su andadura en el 2010 y se paralizó tras la aprobación en Pleno Municipal de fecha 31 de marzo de 2011 de los "Criterios, Objetivos y Alternativas del Plan General". Dicha suspensión acordada en junio de 2011 fue motivada principalmente por dos procesos judiciales que afectaban a dos sectores urbanizables (AR-R2 Lanbarketa y sector industrial Bentakoerreka) sobre los que el Avance había propuesto intervenir, procesos que tienen a día de hoy sentencia firme, por lo que las vías para el nuevo Plan General con garantías se han desbloqueado, lo que ha impulsado al Ayuntamiento a tomar esta decisión.Así se reanudan los trabajos de redacción del Plan General con el documento que ahora se presenta de **"Actualización de Criterios, Objetivos y Alternativas del Plan General".**

Se trata de un documento de **ratificación de los Criterios, Objetivos y Alternativas del Plan General de Arrigorriaga que fueron aprobados en 2011** tras un amplio proceso de participación ciudadana, **sobre el que se revisan algunos aspectos** por las siguientes razones:

- Adaptación a las sentencias judiciales referentes a los suelos urbanizables de Lanbarketa y Bentakoerreka.
- Modificaciones para ajustar el planeamiento a la realidad física.
- Adaptación del documento a las nuevas determinaciones establecidas por los distintos instrumentos de ordenación supramunicipales (territoriales y sectoriales) desarrollados en la CAPV desde 2011.

La **participación ciudadana del documento de "Actualización de Criterios y Objetivos del Plan General"** se desarrollará por un periodo de 2 meses, **entre el 10 de julio y el 10 de septiembre.** Durante este periodo todos los ciudadanos y ciudadanas así como entidades asociativas y demás interesados tendrán derecho a participar a través de los diferentes mecanismos de participación que se han diseñado para tal fin.

#### Formas de participar:

**Presencial:**
Presentación a la ciudadanía del documento de "Actualización de Criterios y Objetivos del Plan General":

Lonbo Aretoa el día 10 de julio a las 19:00 h.
Centro Sociocultural Abusu el día 12 de julio a las 19:00h.

**Exposición de paneles informativos:**
Del 10/07 al 10/09 en el SAC del Ayuntamiento
Horario: de 08:00 a 13:45
Del 12/07 al 10/08 y del 01/09 al 10/09 en Centro Sociocultural Abusu. Horario: de 08:00 a 14:45

**Encuestas:**
Durante el periodo de la exposición se pondrán a disposición del público formularios de encuesta dirigidos a conocer la opinión sobre los documentos expuestos.

**Vía web:**
www.arrigorriaga.eus
Consulta de todo el material elaborado en relación al proceso de revisión del PGOU, encuesta on-line y acceso a noticias relacionadas

## Principales novedades:

Las **principales novedades** en la **actualización de Criterios Objetivos** del Plan General se refieren a los siguientes aspectos:

- Relacionados con los **criterios y objetivos generales:**
  - ❑ Se actualizan los cálculos y previsiones del Avance en relación a la **cuantificación de la oferta residencial** de acuerdo a la modificación de las Directrices de Ordenación del Territorio de la CAPV. Se define una horquilla entre 584 y 727 viviendas.
  - ❑ Se introducen en el documento nuevos criterios acordes a la evolución del urbanismo en cuestiones transversales tales como la **perspectiva de género, la salud o el cambio climático.**
- Relacionados con **el suelo no urbanizable:**
  - ❑ Se eliminan los **núcleos rurales** propuestos por el Avance y se mantiene como único núcleo rural existen el de Brisketa, de acuerdo a lo establecido por la Ley 2/2006 de suelo y urbanismo de la CAPV y al inventario de Núcleos rurales de Bizkaia de la DFB.
  - ❑ Se **actualizan las consideraciones sobre afecciones y trasposiciones** de la legislación supramunicipal en relación a la categorización y protección del **suelo no urbanizable.**
- Relacionados con **los suelos residenciales:**
  - ❑ Se **elimina la propuesta de redensificar el sector AR-R2 Lanbarketa**, ya que la sentencia **del TSJPV** da por finalizada la tramitación urbanística (el ámbito cuenta con Plan Parcial, Proyecto de Reparcelación).
  - ❑ Se da **un impulso a la renovación y rehabilitación de los barrios**. En especial de aquellos que se identifican como preferentes, bien por carencias en la urbanización, por su estado de conservación o condiciones básicas de la edificación, accesibilidad, condiciones térmicas o vulnerabilidad social, etc.
  - ❑ Se **reconsidera la propuesta del suelo urbano de Martiartu** situado entre la BI-625 y el río, debido a los condicionantes sectoriales a los que está expuesto. **Se estudian 2 alternativas**
- Relacionados con **los suelos de actividad económica:**
  - ❑ Se reconsidera la situación urbanística de los **suelos industriales de Bentakoerreka** tras la sentencia del TSJPV y del Tribunal Supremo que anulaban la Modificación de NNSS nº9. **Se estudian 3 alternativas**
  - ❑ **Se descarta la posible ampliación de Bentakoerreka** con las 3 alternativas propuestas en el Avance de 2010 más allá de los suelos clasificados en la Modificación de NNSS nº9 (anulada).
- Relacionados con **las dotaciones públicas:**
  - ❑ Se incluye el objetivo de **potenciar nuevos espacios libres entorno a paseos fluviales** (propuesta "Parque Fluvial"
  - ❑ Se estudia la posibilidad de mejorar la dotaciones de aparcamientos y espacios libres en Ollargan (analizada como **alternativa 2** en el ámbito de la **UE-3 La Peña** de las NNSS vigentes.

En el dorso de este folleto se incorpora un plano con las propuestas y alternativas del Avance (plano nº6) donde se señalan las principales novedades que se están proponiendo y los **proyectos más relevantes** que este documento ratifica.